

Lendakaritzarako eleakzioak aurten ipar-Ameriketean

Jhonson'en kontra nor? Goldwater?

ERREPUBLIKANOAK IKERATUTA

Badirudi, oraingo enbatan jarraitzen baldin badu, Goldwater Arizona'ko senatorea izango dala errepublikanoen izenean lendakari-gai arazoan izango diran eleakzioetan. Goldwater errepublikanoen izenean lendakari-gai izan ditekiera pentsatu utsarekin partidu bereko askok dardarka bildurrez jarri dira. Zergatik? Partiduko gizon aundietako batek, Romney gobernadoreak, esan duan bezala, ori errepublikano partiduaren eriotza izango litzakelako. Zergatik? Nola prestatzen dituzte Ipar-ameriketean partiduak lendakaritzarako eleakzioak? Polliki polliki galdera auk erantzun ditzagun.

IPAR-AMERIKETA, NAZIO FEDERALA

Ipar-ameriketean gertatzen diren gauz asko konprenitzeko, angoinstituzio, oitura ta politikaren goraberak ondo ulertzeko bear bearezko da jakitea ta kontuan edukitzea Ipar-ameriketa nazio federal bat dana. Zer esan nai du orrek? Ipar-ameriketaren izen ofizialak tuak: Ipar-ameriketa "ofisiala" ta amar estadua osatuta dago, ta naiz eta gai batzuek gobernu zentral baten eskuetan egon, gainentzeakoak estadu bakoitzaren eskuetan daude. Orregatik estadu bakoitzak bere konstituzioa, bere parlamentua ta bere

bizi-modua ditu. Bai bada Konstituzio bat estadu gutientzat berdiña baiñan ala ere estadu bakoitzak beste bat berea badu. Orregatik eleakzioak egiteko modua ta eleakzioak prestatzeko modua ez da berdiña estadu guztietan estadu batzuetatik bestetara badago diferentzia.

BI PARTIDUAK ETA AUEN IZAKERA

Bi partidu dira Ipar-ameriketako politika guztia zuzentzen dutenak eta erabiltzen dutenak. Demokrata partidua ta Errepublikano partidua. Baiñan ez uste izan partidu auk Europa'ko partiduen antzik dutenik. Egia esan, oso amerikanoak dira. Badirudi demokrata partidua ezker aldekoa dana ta errepublikanoak eskubi-zaleak

dirana, baiñan leku batzuetan, estadu batzuetan orrela da baiñan beste batzuetan berriez oso diferentea da gauza. Esate baterako ego aldeko demokrata ta senatore demokratak zenbait errepublikano baiño eskubi-zalegoak dira. Ta gainera naiz eta esate batera demokratak egon agintzen, demokrata izan lendakaria, ta askotan ematen dute botoa demokrata senatoreak lendakariaren kontra, bere partiduko lendakariaren kontra.

Partidu batetik bestera dagoan diferentzia, bereiztasuna ikusi nai badegu alperrik gabilta, amerikanoak berak ere ez dakite ta. Goldwater'ek errepublikanoen botoak bereganatzeko orixe dio, alegia, ez dala naikoa bereizten errepublikano partidua demokratenkandik ta bere asmao ori dala, errepublika-

dauka. Lortuko ote du bere naia, errepublikano partiduaren izenean azaroko eleakzioetan lendakari-gai izatea?

ONTARA NOLA IRITXI DAN

Billera aundi ortan lendakari-gai izendatua izateko bearezko da gutxienean 655 mandatarari izatea, mandatarari guztiak 1.308 dira ta. Goldwater dabaneko 600 badauzka baiñan dan danak ez seguruak ordea. Batzuek diotenez zazpireun izango ditu guztienean Billera asterakoan, eta orregatik bereala izendatuko dutela.

Mandatariek bildu naiean asi zanean eta asierako eleakzioak asi ziranean etzuan ezer asko lortu Goldwater'ek. Beti Nixon, Rockefeller ta Cabot Lorge'ren atzetik azaltzen zan. Orduan Goldwater'en lagunak beren indar guztiak berez eskubi-zale diran alderdietako mandatariek lortzea izan zan, partiduaren makinariak zuzen zuzen izendatzen dituan mandatariek lortzen saiatu ziran eta orrela gero ta geroago sendago azaltzen zan Goldwater. Polliki polliki errepublikano partidua kontra egingo zion gizonik gabe arkitu da.

Pruebarik aundiña California estaduko eleakzioetan izandu da. re partiduko etsai guztiak Nelson Rockefeller'i laguntzen saiatu dira, ta bazirudin Rockefeller irabazle izungo zana, baiñan Goldwater'ek irabazi zituan eleakzio aiek. Ordu ezkerzitik sartu dardarra ta bildura errepublikanoa partiduan. Nola alabait Goldwater'i aurrea kentzeko Scranton, Pensusylvania'ko gobernadore errepublikanoak bere izena bota lendakari-gai izan naiean.



Goldwater, Arizona'ko senatorea, errepublikanoen izenean lendakari-gai izan nai dana.

no partiduari bear duan nortasuna ematea.

ELEKZIO AUREA

Partidu bakoitzak lendakari-gaiaren izena botatzeko, lendakari-gaia izendatzeko Billera aundi bat egiten du partidu orrek Ipar-ameriketa guztian dauzkten mandatariekin. Estadu bakoitzetik partidu bakoitzak onenbeste edo ainbeste mandatarari biltzen ditu lendakari-gaia izendatzeko.

Mandatarari oiek estadu batzuetan, geienetan, partiduak, partiduko buru diranak izendatzen dituzte. Baiñan beste batzuetan partiduan izena emana daukaten guztiak eleakzio batzuen bidez aukeratzen dituzte Billera aundi ortara joango diranak lendakari-gaia aukeratzeko. Partiduan barruan lendakari-gai izan nai dutenak asierako eleakzio oiek irabazten saiatzen dira. Orixe egun zuan Kennedy'k 1960'gn. urtean demokrata partiduak lendakari-gai izendatu aurretik eta ori da Goldwater senatorea egiten saiatu dana ta oriangoz ondo dijoakiola dirudi.

NOR DAN GOLDWATER SENATOREA

Arizona'ko senatorea, berrogei ta bost urte ditu. Politikan berandu xamar asi zan. Oso eskubi-zalea. Batzuek diotenez fanatikoa. Berak dionez, konserbadorea besterik ez. Etsaiak ugari ditu, ez beste partiduan bakarrik bere partiduan ere izen aundiñeko gizonak bere kontra

Munduan esaten dana

NEW YORK TIMES Scranton lendakari-gai izan naiean

"Gaiñera agiri-agirian azaltzen da Scranton jaunarentzat Goldwater errepublikanoen lendakari-gai izango balitzake errepublikanoak izugarriko galerak izanko litzakelako bai diputaduak eta bai senatoreak izateko kongresuan. Orregatik asi da mugitzen".

DIE WELT

Gezur tankerako zerbaít

"Kruschev eta Ulbricht'en artean izenperutako tratadua bi gauzatarako balio du. Moscoun ta Pankow'en arteko pake tratadua den lekua betetzeko lenengo, ainbeste aldir, ainbeste propagandarekin ta ain gogor eskatutako pake tratadua. Ikusten denez Kruschev'ek ez du eman nai ariskuzko azkeneko pausoa. Berak badaki pake tratadu bat ezin dezakela egiti bi Alemanien ekin eta orregatik Pankow'eko-ekin onen du au da. here buruarekin egiti balu bezela".

LE MONDE

Marruekos ta Alger'en arteko artu-emanak

"Alger eta Marruekos Alkarrren kontra tresna berdiñarekin ote dabiltz? Ez ote dabiltz biak jende berdiñarekin jokutzen ari, au da bereber tribuekin? Batzuek Djurdjua makisekin eta besteak eguzkialdeko Rifeko Bein Snassen'ri tribuekin? Era guztietara Marruekos'en aldetik indar guztiarekin diote ez dutela zer ikusirik Ait Ahmed'erekin".

L'AURORE

De Gaulle'k lendakaritzan jarraituko du

"De Gaulle'k ez du asmorik bere zazpi-urtekoa bukatzerakoan berriro Colombey-des-Eglises'era joateko. Elyseon jarraituko asmao du, au da, nazioari beste mandatu bat eskatzeko asmao du. Baiñan nola?".

LA DISCUSSIONE

Kristau demokraziaren indartu bearra

"Laister du Itali'ko kristau demokraziak bere Batzordea Ortarako La discussiones astero-koan iritzi batzuek azaldu dira. Oien artean au:

"Ondo antolatuta ta sendotu gabe Kristan Demokrazia bai gabe, berri azaldu nai izan arren, ur egingo du politika ta ekonomia oposizio baten barruan, katolikoak eta sozialistak elkar gobernatzea kendu erateko sortu dan oposizio ortan".

NAZIO-ARTEKO UNEA

Kruschev'en itzaldi bat

Dakigunez —ainbeste aldir irakurri degu!— Kruschev'ek ez du okasiarik gaitzen txinoekin sartzeko, txinoel nola ibilli bear duten esateko. Errusia't Alemanian'ko Errikoi demokrata errepublikarekin —komunisten menpean dagonarekin alegia— adizki-detasunerako tratadua izenpetzerakoan Kruschev'ek itzaldi egin du. Errusia ta Txina'ren arteko burruka ta asarrea ezer gutxi jarraitzen baldin badegu ere komeni zaigu itzaldi orren zati batzuek jakitea ta pentsatzea. Inprobisatuaz, onela mintzatu da Kruschev:

"Ez gaituzte nunbat naiko erreboluzio-zale arkitzen. Ara ba guk zer diogun: erreboluzioak ez du sentzurik, erreboluzio orrek irabazteko alimenik eta izaterik ez baldin badu. Ez degu arrokietan ibilli nai txinoak besela. Mingaiñaren luzea ez da irabazteko neurri onean. Erreboluzioak irabazteko bere barruan bear ditu doaiak, alimenak".

Baita ere esan du komunismoak edo sozialismoak egin bear duana bizimoduaren neurria obetzea dala ta orrela kapitalismoak baiño gertago balio duala adierazi. Ez dabilki lenengo aldir azkeneko arrazoi au. Orain baiño lehen makina bat aldir ibillia dut Txinoak, agintariak beñepeln, ez diote ainbeste bildurrik atomika gerrate bati ta gaiñera euren ideiak zabaltzeko ez dute batera bildurrik gerra egiaz zabaltzeko. Idela ta asmao oietaz ere esan du zerbaít Kruschev'ek bere itzaldi ortan: "nalkoa da belu litzea, biltzize maitte degu guk. A ze zozkeria edozein nazioetako langile klasea askatzeko gerrate bat sartzea".

Ez dakit zer usetu duan Kruschev'ek baiñan asarre asarre txinoel botatzen diakien erru oietatik asku ez ai dira lenago Errus'ak berak eginak? Zergatik ez ote da Kruschev bere pentsamendu ta asmoetan aurrerago joaten ta komunistentzat mugi ezinako aranak benetakoak ez ote diran zergatik ez dio bere buruari galdetsen?

Aleman gutxiok erriak aukeratu bear duala Alemania zer izan bear duan esaten dute Okzidenten alieko almandarrak. Komunistak ez dute ori, asmao ori onartu nai, orduan euren mendean daukaten Alemanian'ko eskutatik iges egingo litzakelako. Kruschev'ek itzaldi ortan esan duazue ez dago autodeterminazioa egiterik bi Aleman'etan bi estaduk diferentia diralako. Bai buru txarra dutela komunistak! Euren komeni zaienean gogor asko eskatzen dute ba errien autodeterminazioa! Zergatik orain ez? Etsaiekela komeni.

ARREGITAR RIKARDO'K



Scranton, Pensusylvania'ko gobernadore, Goldwater'i kontra egin nai diona.

ERREPUBLIKANOEN BILDURRAREN ARRAZOIAK

Lendakaria aukeratzeko eleakzioekin batera diputaduak eta senatoreak aukeratzen dira. Bildur dira, ta araziorekin gaiñera, errepublikanoak eskubizaleki bat baldin bada euren buru eleakzioetan daukaten indar geiena galduko dutena.

Gaiñera gerta ditek, errepublikano batzuek euren buru Goldwater ez nai izanean partidua zatituta gelditza.